Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2025

AGINDUA, 2011ko martxoaren 31koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2011ko deialdiaren epea luzatzen duena. Dekretu horrek Leader Ikuspegiaren aplikazioa arautzen du, 2007-2013 aldiko Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera.

Martxoaren 9an ondokoa argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: «2011ko otsailaren 8ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, 2010. ekitaldiko laguntzen deialdia egiten da, 2007-2013 aldiko Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzeko azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren babespean».

Agindu honen arabera, azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuak araututako laguntza deialdian 2011 ekitaldian sartzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, eta halaxe gertatu zen 2011ko martxoaren 9an, 47. zenbakiko EHAAn.

Lehengoa gorabehera, Mendinet Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkartea toki ekintzako taldearen –eskabideak batu eta mekanizatzeko ardura duena– antolakuntza zailtasunak direla eta, beharrezkoa da 2011ko martxoaren 9ko Aginduan ezarritako epea luzatzea, eskabideei aurre egin eta aurkeztutako eskabideak kudeatu ahal izateko.

4/1999 Legeak aldatu zuen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 49. artikuluak ahalmena ematen dio administrazioari arautegi horretan aurreikusitako baldintzak betez eskabideak aurkezteko epeak luzatzeko. Laguntza eskaerak aurkezteko epearen luzapena Bazko oporretan argitaratuko denez, komenigarria da epe egokia ezartzea onuradun izan litezkeenek eskaeraz gain izapidetu beharreko dokumentazioa ere aurkeztu ahal izateko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2025

ORDEN de 31 de marzo de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se amplia el plazo de la convocatoria para el año 2011, de las ayudas previstas en el Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la aplicación del Enfoque Leader, de acuerdo al Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013.

Con fecha 9 de marzo de 2011 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden de 8 de febrero de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2011, al amparo del Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la aplicación del Enfoque Leader, de acuerdo al Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013.

Esta Orden establece que el plazo para la presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecidas en el Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, hecho que se produjo el 9 de marzo de 2011, en el BOPV n.º 47.

No obstante lo anterior, dificultades de carácter organizativo del Grupo de Acción Local «Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural Mendinet», encargado de recoger y mecanizar las solicitudes, hace necesaria la ampliación del plazo previsto en la Orden de 9 de marzo de 2011 para poder atender debidamente a los solicitantes y realizar la gestión adecuada de las solicitudes de ayuda que se presenten.

El artículo 49 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, faculta a la Administración para ampliar los plazos de solicitudes en los términos allí prevenidos. En atención a las fechas de publicación de la ampliación del citado plazo de presentación de solicitudes de ayuda, que coincidirá con el periodo de las vacaciones de Pascua, es aconsejable establecer un plazo razonable para que los posibles beneficiarios puedan disponer del plazo suficiente para la presentación no sólo de la solicitud sino de la documentación exigida para su tramitación.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2011ko maiatzaren 9ra arte (berori barne) luzatzen da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko otsailaren 8ko Aginduaren bidez deitutako laguntza eskaerak aurkezteko epea; agindu horren bidez, 2011ko ekitaldiko laguntzen deialdia egin zen, 2007-2013 aldiko Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzeko azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren babespean.

Bigarrena.– Agindu honek sinatzen den egunean bertan izango ditu ondorioak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eguna edozein delarik ere.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 31.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

En base a lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Se amplía hasta el 9 de mayo de 2011 (incluido) el plazo de presentación de las solicitudes para acogerse a las ayudas convocadas mediante Orden de 8 de febrero de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2011, al amparo del Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la aplicación del Enfoque Leader, de acuerdo al Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013.

Segundo.– La presente Orden surtirá efectos desde el día de su firma, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de marzo de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.